

Nork: [Azkoitiko Hitza](#) -Uzt 20, 2017

45. URTEURRENA OSPATZEKO PREST DA AZPEITIKO SAGARDO TXAPELKETA

'Azpeitia eta sagardoa' liburua egin dute, Udalak argitaratuta, eta zapatuan aurkeztuko dute. Santio egunean, berri, aurten ez da txapelketa herrikoirik izango, eta irabazleek garaikur berriak jasoko dituzte.



Antolatzaileak, babesleak eta laguntzaileak atzo, Añotan, Sagardo Txapelketaren aurkezpenean. (Mailo Oiarzabal)

Elosiagako Añota sagardotegian elkartu ziren atzo iluntzean Azpeitiko Sagardo Txapelketaren antolatzaileak eta babesleak, aurtengo edizioaren berri emateko. Aurten ere, Santio egunez egingo da txapelketa; eta, berez, txapelketa bera festa giroa sortzeko nahikoa aitzakia izaten bada, aurtengorako edizio are bereziagoa prestatu dute.

Izan ere, 45. urteurrena ospatuko du aurten Azpeitiko Sagardo Txapelketak. Xebastian Lizasok gogoratu bezala, urte gehiago ditu txapelketak, "52 edo 53 bai, baina jarraian egindako 45.a izango da" datorren asteartekoa. "Biribil antzeko" urteurrena baliatuta, eta iaz aurreratu zuten bezala, Udalarik laguntza eskatu eta liburua argitaratu dute txapelketaren antolatzaileek. Azpeitia eta sagardoa da Laxaro Azkunek idatzi eta Juan Joxe Agirrerren argazkiekin osatu duten liburuaren izenburua. Liburua etzi, zapatua, aurkeztuko dute jendaurrean; udaletxean izango da ekitaldia, 12:00etan. Aurkezpenean ez ezik, uztailaren 25ean ere izango da liburua erosteko aukera, plazan.

2017ko txapelketaren beste berezitasunetako bat izango dira garaikurrak. Irabazleak jantziko duen txapelaz gain, sailkapeneko lehen hirurek jasoko dituzten garaikurrak berriak izango dira aurten. Orain arteko kopien orde, Mikel San Juanek egurrean tailatutako garaikurrak banatuko dituzte aurten; esku bat botilatik sagardoa botatzen eta beste bat edalontziarekin sagardoa jasotzeko prest irudikatu ditu egileak eta, atzean, plazako kioskoa.

Txapelketa berari dagokionez bada beste nobedade aipagarri bat. Izan ere, Lizasok azaldu zuen aurten ez dutela txapelketa herrikoia egingo, nagusia bakarrik izango da. "Garai batean, konturatzin ginen sagardogileek ez zutela sagardo berdina ekartzen txapelketarako eta herritarrek dastatzeko. Horregatik hasi ginen elkarrekin txapelketa herrikoia egiten. Gaur egun, badakigu sagardo berdina ateratzen dituztela kioskoan eta plazan; orduan, ez diogu zentzurik ikusten bi txapelketekin jarraitzeari".

Aurten ere 23 sagardogilek parte hartuko dute Azpeitiko txapelketan. Gainera, arkupeetako postu bakoitzean "gutxien eztxeko ordezkari bat" jardungo da sagardoa ateratzen; horrela eskatu diete antolatzaileek sagardogileei, "banan-banan". Santio egunean sagardoa dastatzera doazenen 3 euroren truke eskuratuko dute edalontzia eta, harekin, "nahi adina" sagardo dastatzeko aukera.

Eneko Etxeberria alkateak eskerrak eman zizkien txapelketaren antolatzaileei, "herriaren alde urtero egiten duten esfortzuairengatik", eta herritar guztiei luzatu zien gonbita, "bai liburu aurkezpenera, bai txapelketara" azaltzeko.

Gazta lehiaketa, Berdura plazan

Sagardoa ez da izango, ordea, Santio eguneko eguerdi parteko festaren osagai bakarra. Horrela, Astotegian, eskualdeko ganadu erakusketa egingo dute; 44 abelburu izango dira bertan. Eguneko beste lehiaketa, Idiazabal gaztarena, plazan egin beharrean Berdura plaza berrituan egingo dute aurten, "inaugurazio modura edo, herritarrek plaza ikusteko aukera ere izan dezaten", azaldu zuen Mikel Ibarzabal Festa batzordeburua. 28 gaztagilek parte hartuko dute lehiaketan.

Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoia finala, irailean



KATALUNIAKO ATXILOKETAK SALATU DITUZTE ESKUALDEKO HAINBAT HERRITAN



Lotutakoak

ETIKETAK	ATALAK	EGILEAK
	'Civilizacion kapitalista' liburu	...
	Nork: Urola Kostako Hitza - Urr 17, 2017	Azpeitia
	HARA! Sarean ikusgai dago jada 'Pe ...	...
	Nork: Urola Kostako Hitza - Urr 17, 2017	Azpeitia
	Lodifobiaz hizketan arituko dira zapatuan ...	...
	Nork: Urola Kostako Hitza - Urr 17, 2017	Azpeitia
	'Handia' filma emango dute as ...	...
	Nork: Urola Kostako Hitza - Urr 17, 2017	Azkoitia

IKUSIENAK

AZKENAK	IRAKURRIENAK	IRUZKINAK
	Kataluniako atxilotetak salatutako es ...	...
	Nork: Urola Kostako Hitza - Urr 17, 2017	Azkoitia

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteen laguntza izaten dute Azpeitiko antlatzaileek txapelketa antolatzerakoan, eta elkarteko koordinatzaile Olatz Mitxelenak ere hartu zuen parte atzoko aurkezpenean. Hain zuzen ere, irailaren 30ean Azpeitian izango den beste hitzordu baten berri eman zuen Mitxelenak. Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoiairen finala egingo da egun horretan herrian, eta bertarako txartelak salgai egongo dira Santio egunean plazan, ISB tabernan, Añotan edo sagardozaleen elkarteetan.

Eta guztia osatzeko, urtero lege, Eusko Labeldun txekorraren eta hegaluzearen pintxoak ere salgai izango dituzte plazan uztailaren 25ean, bakoitza 2 eurotan. Lortutako dirua garapen bidean diren herrialdeetan proiektuak laguntzeko izango da aurtan ere.



[AZPEITIA](#) [AZPEITIKO SAGARDO TXAPELKETA](#) [FESTAK](#) [SANTIOAK](#) [URTEURRENA](#)

Ez dago iruzkinik

UTZI IRUZKIN BAT

Izena *

Email *

Website

POST COMMENT

© Urola Kostako Hedabideak, S.L.

Araba kalea 25, 20800 - ZARAUTZ - Tel.: 943 890 017 - Posta Elektronikoa: urolakosta@hitza.eus Perez Arregi plaza 1 behe, 20730 - AZPEITIA - Tel.: 943 813 841 - Faxe 943 150 358



Gipuzkoako Foru Aldundia



[Urola Kostako Hitza](#)

[Cookie Politika](#) | [Pribatasun Politika](#) | [Lege Oharra](#)

WEBGUNE HONEK BAT EGITEN DU [CREATIVE COMMONS](#) ERABILERA LIZENTZIAREKIN.



Errazkin eta Intxaurrandieta auzitara era ...

Nork: [Julene Frantzesena](#) - Urr 17, 2017

[Azpeitia](#)



HARA! Xabier Euzkitze Gaztea irratiko &# ...

Nork: [zarauzkohitza.eus](#) [Aktualitatea](#) - Urr 17, 2017

[Azkoitia](#)